

# EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKALKIEN INDARRA.

Orain arte euskalkiak jzan dira euskeraren jndarra erriaren aoan.

Bitartean, bere batasuna eginda zeukaten ele eta izkuntza zenbaitek (latiña beuren artean) iLda daude ljburuetan; literatura askorekin, baiña, ilda.

Latiñari buruz bagera, bere latinkiak (romances) bizirik djraute oraindik errien aoetan,

Euskera "batua" jlda jaio da; ez bajt du errietatik iñork orrela jtzegiten.

Alaz ere, batu baten rnoideak bearrezkoak ditugu literaturaren aldetik.

Baiña, euskalkjak (giputxa, naparra, bizkaitarra, laburtarra...) il gabe.

Euskalkjak jlko diran egunean jlko bait da euskera berbera ere errien aoetan.

Bi zaldi bear ditu euskeraren gurdjak, aurrera ariñ-arjñ joango bazaigu: Literatura euskera batu bat, eta euskalkjak bizirik erriaren aoetan.

Batu bat bear da.

Goitik poderjuz eta bortxaz trokelen bidez jota eginda, edo beetjk zabalduaz....Norberak jkusj." Gustoekjn ez bajt da djsputarik"

Indarkeriaren emaitzak, ordea, gure inguruan ikusiak dauzkagu; Batasuna (unifikazioa) egin zan goitik aginduta.

Ogejtamar urteren buruan lengora gatoz berrjro: Orduan trokelez bat egiña, orain bereiztera

Indarkeriaren bidea artzea, gauzak ogej ta amar urte atzeratzea besterik ez da izanen. Indarrez egiten diranak burnian balioko dute (burnian bertan ere, burnjak bere giroa bear du; ez da otzik egiten; ondo gorituta, baizik), baiña gizaseme-  
emakumeen biotzetan ez du belio iñundjk ere.

Betiko leloan sartuta gaude, pertsona ala elkartea?

Pertsonari bakarrik begiratzeak oker aundiak ekarri dizkio gizadiari; zenbait mesede ere bai.

Elkarteari bakarrik begiratzeak mesede aundiak dakazki bere orrekin; baiña, kalterik ere ez da falta. Kin-kan gabjlta. Justizi eta zuzentasuna eskatzen diguten erdiko puntu orj, nun dago?

Batasuna euskalkirik gabe, zer da?

Euskera bjiaren eriotza, liburutegj ederrak.

Euskalkiak batasunik gabe ?

Perfezio gutxjago, liburugintza gaitzago, jakindurj-bideak estuago Euskera bizirik, ordea.

Pelotari onak ezker-eskubiak, bjak bear ditu, aurrera joango bada. Euskerak ere batasunarekjn batera euskalkien aberastasuna eta bjzja, biak bear.

Euskalkj guztien aberastasanak batera ekarri, euskalkieri leporik moztu ga<sup>be</sup>....

Bukatzeko: Aolku apal bat ikastoletako aurreri buruzkoa. Ona: Zenbat eta aurra gazteago, orduan eta amaren jzkuntza bearrezkoago. Amaren euskalkjan aurra azi bearko, gero batasunean eziko badegu. Laboratorio utsean sortutako euskera jajo-gabe galdutako aurra da.